



EBAZPENA, 2019ko URTARRILAREN 29koa, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, ORDEZKAPENAK EGITEKO 2018ko AZAROAREN 16an IREKI ZIREN APARTEKO ZERRENDETAN ONARTUTAKOEN ETA KANPOAN UTZITAKOEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA.

Hezkuntza saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2018ko azaroaren 16ko ebazpenaren bidez ordezkogaien aparteko zerrendak ireki ziren ondorengo mailan: Lehen Hezkuntza. Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak 17. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

Deialdi horretan ezarritakoaren arabera,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Argitara ematea Lehen Hezkuntza mailan ordezkapenetako zerrendetan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda; hori Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2018ko azaroaren 16ko ebazpenaren bidez ireki ziren. Kanpoan utzitako kasuan, kanpoan utzi izanaren arrazoia edo arrazoiak adieraziko da/dira.

Bigarrena.- Ordezkapenetako zerrenda horiek osatzen dituzten ordezkogaiak aipatutako aginduan ezarritako irizpideen arabera ordenatzen dira eta, alfabetikoki, izen-deituren arabera, 2018-2019ko ikasturtean ordezkapenak egiteko ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan alfabeto-ordena zehaztuko duen letra aukeratzeko zozketaren emaitzaren arabera. Zozketa horren emaitza Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2018ko otsailaren 19ko ebazpenaren bidez eman zen argitara: V letra.

Hirugarrena.- Onartutako eta kanpoan utzitako behin-behineko zerrendak toki hauetan kontsultatu ahal izango dira:

- www.irakasle.eus orrian / Irakaslegunea / "Administrazio-izapideak" eta "Zerrendak irekitzea" / "Zerrenda-Irekitze Berriak" – "Eskaera-aldi itxia dutenak (Prozesuaren Segimendua)" estekan klik eginez.
- www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/ orrian / Lan-Arloak / Langileak / Hornikuntza-Irakasleak / Ordezkapenetarako izangaiak / Aparteko zerrendak irekitzea / Zerrendak irekitzea / 2018-11-16ko deialdia, eta www.irakasle.eus estekan klik eginez.

Bi kasuetako edozeinetan, alde zuzen erabiltzailearen eta pasa-hitzaren klabeak sartu beharko dira. Klabe horiek izan edo gogoratu ezean, www.irakasle.eus orrian lortu ahal izango dira, "Pasa-hitza eskuratu (edo berreskuratu)" estekaren bidez.

Ondoren, eta "Kontsulta pertsonalizatua" estekan klik eginez, egindako eskaerari buruzko banakako informazioa lortu ahal izango da.

Zerrendetatik at geratu diren pertsonen kasuan, "kontsulta pertsonalizatuen" atal horretan bertan ikusi ahal izango da/dira kanpoan geratu izanaren arrazoiaren xehetasun konkretua.

Laugarrena.- Interesatuak nahi dituzten erreklamazioak jarri ahal izango dituzte behin-behineko zerrenda honen kontra, 2019ko urtarrilaren 30etik otsailaren 5era bitartean, biak barne.

JON AGIRRE HUERGA
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 29